

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

182/2016, Foru Agindua, uztailaren 18koa. Ibilgailuen zirkulazioa murriztea Gorbeia Parke Naturaleko Arabako isurialdeko marrualdi eremuko bide eta pistetan, 2016ko irailaren 5a eta urriaren 9a bitartean

Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 66/1998 Dekretuaren bidez, onartu zen Gorbeia Parke Naturaleko erabilera eta kudeaketa plan zuzentzailearen araugintza zatia, eta agindu osorik argitaratzeko.

Halaber, martxoaren 9ko 10/2010 Foru Dekretuaren bidez, onartu zen Arabako Foru Aldundiaren onura eta jabari publikoko mendietan ibilgailu motordunen zirkulazioa arautzen duen araudia.

Bestalde, azken urteotan arautu da nola ibili behar duten ibilgailuek Gorbeia mendiko bideetan oreinen marrualdiko garaian, eta emaitza oso onak lortu dira espezie horren kudeaketa planaren barruan. Arabako Foru Aldundiak landu izaten duen plan horren xedea da, besteak beste, oreinen populazioan hobekuntzak lortzea eta espezie horrek inguru hartan eragiten dituen kalteak murriztea. Beraz, planifikazio eta lan horien barruan, beharrezkoa da arautzea, aurreko urteetan bezala, nola ibili behar duten ibilgailu gurpildunek Gorbeia mendiko Arabako isurialdeko marrualdi eremuko pista eta bideetan.

Gorbeia Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzaileak, 8.2.1 atalean, mugak ezartzen ditu marrualdirako: "oreinak geografikoki sakabana daitezten saihesteko eta erreproduzioaldian edo "marrualdian" aukeraketa naturala errazteko, beharrezkoa da espeziearentzako aldi kritiko honetan kanpoko asaldurak gutxitzea Parke Naturaleko Arabako zatian".

10/2010 Foru Dekretuak bosgarren artikuluan xedatzen duenez, natura gunen babestuetan berariazko araudia begiratu beharko du zirkulazioak.

Zer neurri ezarri behar diren gomendatzen duten txosten teknikoak aintzat harturik, haien bertutez eta dagozkidan ahalmenak baliatuz.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Murriztea Gorbeia mendiko Arabako isurialdeko marrualdi sektorean diren pista eta bideetako ibilgailuen zirkulazioa, hain zuzen ere, Zuiako eta Zigoitiko udalerrietako lursailetan, honekin batera doan eranskinean zehazten diren mugekin, 2016ko irailaren 5a eta urriaren 9a arteko epean, biak barne, salbu eta ehizaren, egurraren, larreen, luberrien eta saskinaren aprobetxamenduetan edo zientzia ikerketa baimenduetan eta beste batzuekin zerikusia duten kasu berariaz baimenduetan, horri buruz 66/1998 eta 10/2010 dekretuetan aipatutakoaren konforme.

Zirkulazioa murriztuta izango duten pista eta bideak behar bezala seinalatuta egongo dira murrizte aldian.

Marrualdi eremuaren zedarritze ebazpen honen I. Eranskinean dago jasota.

Bigarrena. Zaldiz eta mendi bizikletaz egitekoak diren ibilbideetarako, diren banaka nahiz saldoan, Parkearen Organo Kudeatzailearen baimena beharko da.

Hirugarrena. Marrualdi eremuan oinez egitekoak diren ibilbideak, diren banaka nahiz saldoan, Bidexken Sare Orokorrean zehar egin beharko dira, eta ezingo da haietatik irten inolaz ere.

Laugarrena. Marrualdian zehar espeziearekin zerikusi zuzena duten jarduerak gauzatzeko, hala nola entzutea, behatzea, argazkiak egitea, filmatzea eta abar, Parkearen Organo Kudeatzailearen berariazko baimena beharko da, eta baimenak determinatuko ditu leku, ordu-tegi eta jokabide arauetara dagozkienak.

Bosgarrena. Parkeko kudeaketa organoak debeku eta muga horien berri eman beharko die kasuan kasuko udalei, administrazio batzarrei eta ehiza esparruei.

Seigarrena. Foru agindu hau indarrean dagoen bitartean debekatuta dago perretxikoak biltzea marrualdi eremuan.

Zazpigarrena. Ahal dela, eta premiazkoak ez badira (garbiketak, bakanketak, mehaketak), marrualdi eremuan ez da baso lanik egingo foru agindu hau indarrean dagoen bitartean.

Zortzigarrena. Epe horretatik kanpo ere, urtean zehar debekatuta egongo da motor ibilgailuak ibil daitezten Gorbeia natura parkeko pista eta bideetan, Erabilera eta Kudeaketa Plan Zuzentzailearen 10.2.2 zatian ezarritako baldintzen arabera.

Bederatzigarrena. Agintzea Foru Agindu hau ALHAOn argitara dadin.

ERANSKINA

Marrualdi eremuaren mugaketa:

IPARRALDEAN: Araba eta Bizkaia arteko muga, "Arraldeko haitzak" (Zuia) eta "Leizaranda" (Zigoitia) artean.

EKIALDEAN: Murua herritik "Leizaranda" dermioraino, Gorbeia harrobietara doan pista eta hortik aurrera.

HEGOALDEAN: Murua, Manurga, Zarate, Aretxaga, Markina eta Sarria herrietako Gorbeia behe basoa, A-3610 errepidearen eta Gasteiz-Altube N-622 autobidearen gainean dagoena.

MENDEBALDEAN: Baia ibaiarekin paralelo doan pista, Sarria herritik "Arraldeko haitzak" dermioraino.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO